

ARAZO EGOERA

ESAERA ZAHARRA, ITURRI ZAHARREKO UR BERRIA

ARLOA: Euskara eta Literatura, Natur Zientziak

MAILA: LH osoa

2030 AGENDA KO HELBURUAK

Jarduera honekin 2030 Agendaren Garapen Iraunkorrerako Helburu hauek lantzen dira:



TESTUINGURUA

Euskal kulturaren altxor preziatua da, esaera zaharrena eta erabiltzen ez bada galduko dena. Hitz neurtu eta errimatuak erabiliz, mezua helarazteko modu polita eta zuzena, alajaina!

Ondare hau, **naturarekin eta natura zainduz bizi ziren herritarrengandik**, jaso dela nabaria da eta horren ispilu dira, ondorengo esaera hauek: "Goiz gorri, arrats euri", "Azaroa hotz, negua motz", "Otsailean bero, negua gero", "Urtarril hotza, neguaren bihotza", "Eguzki eta euri, martxoko eguraldi", "Apirilaren azkenean, hostoa haritz gainean", "armiarma beltz handiak irteten dutenean, eguraldiaren aldaera", ...

Hitz gutxirekin, asko esaten dutenak!

ARAZOA

Zuen herriko udaletxetik, gonbidapen bat jaso duzue, **urteko egutegia** osatzeko, **esaera zaharren bilduma bat** egin nahi dute. Hilabetez hilabete garaiaren ispilu izango den esaera bat aukeratuz.

Animatzen al zarete egutegiaren osaketan parte hartzea?

Horretarako, urtean zehar, **eguraldiak izaten dituen gorabeherak aztertuz**, ea **esaera zaharren bidez**, hori **adierazteko moduan** zareten.

Gainera, garai batean esaera hauen erabilera oso ohikoa bazen ere, gaur egun, tamalez oso gutxi erabiltzen dira euskararen altxor hauek eta iraungo badute, erabili beharrean gaude.

XEDEA

Egunez eguneko kanpo baldintzak aztertuz, urtaroetan zeharreko aldaketez jabetu eta eguratsaren baldintza horiek islatuko dituen **esaera zaharrekin lotzea**.

HELBURUAK

- Zuzeneko harremanaren bidez, **eguratseko baldintzekin zuzeneko harreman kontzientea** izan.
- Eguratseko **aldagaien datuak jasotzea: Temperatura, prezipitazioa, hezetasuna, haizea, eguzkiaren sorrera eta sarrera orduak, ihintza egin duen, izotzik, lanbroa, euri zaparrada, kazkabarrik,...**
- Denbora jakin bateko datuetan oinarrituz, irudi grafikoan bidezko **adierazpena eta ulermena**.
- Esaera zaharrak bilatu eta aukeraketa egitea.
- Hilabete bakoitzeko baldintzei erreferentzia egingo dion **esaera zaharraren bidezko lotura egitea**.

- **Ondare ez-materialaren** ikuspegitik esaera zaharrek duten **balioaz jabetzea**.

ATAZA

Gorputzaren sentrazioen bidez, **eguratsaren baldintzez konturatzea**. Modu berean, **estazio meteorologikotik datuak bildu** eta **grafikoki adieraztea**. Sentrazio bidez eta estaziotik jasotako datuen arteko **erlazioa aztertzea**. **Esaera zaharren** bilketa eta **aukeraketa**.

JARRAIBIDEAK

- Naturara gerturatuz, **eguratsaren baldintzen sentrazioak jasotzea**. Hona hemen gomendio batzuk:
 - Zerua aztertu: kolorea, hodeien presentzia, hodeiak nolakoak diren, mugitzen diren,...
 - Euritan, euri tantak sentitu, edo ur putzuen gainazalak ukitu, hanka edo eskuak uretan sartu, goroldio bustia ukitu,...
 - Haizea badabil, haize lekuetan zein haize ezkutuan sentrazioak jaso
 - Eguzkitan edo itzaletan tenperatura sentrazioak jaso.
 - Hezetasunaren inguruko sentrazioak jaso, errekatik gertu eta urrun.
 - Gorputzeko atal ezberdinen bidez, sentrazio hauek izatea gomendagarria da, baita, oinetakoak kendu eta hanka hutsik lurra sentitzea ere.
- Sentrazio horiek, **idatziz gorde**.
- Eguratseko **aldagaien datuak jaso** daitezke, estazio meteorologikotik zuzenean edo bestela, Euskalmet zerbitzuaren bidez, leku ezberdinetako aldagaien datuak eskura daude:
 - <https://www.euskalmet.euskadi.eus/behaketa/estazioen-datuak/>

Naturan hezten

- Naturaren mintzoa" (Pello Zabala) liburu eder hau ere, oso gomendagarria, eguraldiaren gorabeherak ezezik esaera zahar ugari agertzen baitira.
- Datu horiek, modu ulergarrian izateko, **adierazpen grafikoak egin** daitezke.

Zuzeneko sentrazioak eta estazio meteorologikoetan jasotako **datuak konparatu**. Oso ohikoa baita, termometroak tenperatura ez hain baxuak adieraztea eta hotz sentrazioa ikaragarria izatea, haizea edo hezetasuna dela eta.

- Eguratseko aldaketekin zerikusia duten **esaerak zaharrak bildu** daitezke, aiton-amonei, edo adineko jendeari galdetuta. Ondorengo iturriak ere kontsulta daitezke:
 - Esaera zaharrak eta txiste berriak, Joxan Ormazabal.
 - <https://euskaljakintza.com>
- **Hilabeteko** eguratseko baldintzetan oinarrituz, hori islatuko duen **esaera zaharra aukeratu** daiteke.
- Bukaera emateko, eguraldiaren gorabeherekin lotutako **kantu eta olerkiren bat** interesgarri izan daiteke.

Hona hemen, esaterako:

*Urtarrileko goiz izardunez
bazter orotan izotza
Xuriz jantzia neguak dauka
agertzen bere bihotza*